# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

### 5923

*HUTS-ZUZENKETA, honako Agindu honena: Agindua, 2024ko azaroaren 21ekoa, Justizia eta Giza Eskubideetako sailburuarena, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren Gipuzkoako Zuzendariordetzako Auzitegiko Klinikako zerbitzuburuaren lanposturako merezimendu-lehiaketa espezifikoa behin betiko ebazten duena.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2 b) artikuluak xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak eta omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada.

Era horretako hutsak atzeman dira 2024ko azaroaren 21eko Aginduan, Justizia eta Giza Eskubideetako sailburuarena, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren Gipuzkoako Zuzendariordetzako Auzitegiko Klinikako zerbitzuburuaren lanposturako merezimendu-lehiaketa espezifikoa behin betiko ebazten duena. (2024ko abenduaren 2ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 234. zk.). Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen.

Aginduaren ebatzian,

hau dio:

> «Behin betiko esleitzea 210002 lanpostua, 1. dotazioa, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko Gipuzkoako Zuzendariordetzako Auzitegiko Klinikako zerbitzuburua, M.ª Carmen Baigorri Soler andreari».

Baina hau esan behar du:

> «Behin betiko esleitzea 220002 lanpostua, 1. dotazioa, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Institutuko Gipuzkoako Zuzendariordetzako Auzitegiko Klinikako zerbitzuburua, M.ª Car Ere Baigorri Soler andreari».